




1958



1971



1934

euskal herriko  
ezkertiarren batasuna



Gasteizko jaietan ere  
Ongi pasa Euskaraz!!

ONGI ETORRI !!

batasuna



e u s k a l d u n o n  
**Egunkaria**

**Kaixo, irakurle:**

Eskutitz honen bidez, **barkamena eskatu nahi dizugu uztailleko Geu Gasteiz aldikaria berandu helarazi izateagatik.** Aldizkariarekin batera, Euskaldunon Egunkariak bere Gida Komertziala banatu zuen doan, eta horixe izan da atzerapenaren arrazoia.

Sortutako eragozpenen ordainetan, Gida Komertzialarekin batera jaso zenuen oparitxoaz gain (Egunkaria 15 egunez doan jasotzea), beste bat eskaintzen dizugu esku artean duzun Geu Gasteiz honekin batera: Xuxen, euskarazko zuzentzaile ortografikoa lortzeko aukera(\*).

Eskaintza berezi honek okerra berdinduko edo leunduko duen esperantzan, agur bero bat.

**EGUNKARIA. Marketin saila**  
(\*)INFORMAZIOA: DATOZEN ALEETAN



**EUSKARA  
AÑANAN  
MINGAINEAN**

**ADI AÑANAKO ESKUALDEKO  
EUSKARAREN ALDEKO  
VI. JAIA RI !!!**

**ZUHATZU  
KOARTANGON,  
IRAILAREN 23an**

104. zk. 2001eko abuztua

# GASTEIZKO JAIK: 1884-2001

ALE HAU BURUTZEKO...

- Informazioa: Udal Arxiboko eta Artxibo Probintzialeko Hemerotekak
- Jaietako argazkiak eta kartelak: Udal Artxiboa
- Zatiduren informazio iturria: Egunkariak eta "La Blanca"-Arabako Foru Aldundia
- Testua: Josune Velez de Mendizabal
- Egunkarietako argazkiak: Edorta Sanz

\*Azaleko argazkiak: Udal Artxiboa

- Blusak (C. Yanguas, 1934)
- Txupinazoa Plaza Berrian: Zeledonon 1. Jaitsiera (J.M. Parra, 1958)
- Andre Maria Zuriaren plazan eginiko 1. Txupinazoa (J.L. Barroso, 1971)

\*Jai Egitarauaren azala: Agurtzane Villate



GEU Elkartearen ekimenez egina  
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •  
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es


Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Agurtzane Villate. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92  
ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



# JAI EGITARAUA 2001: 17-18. orr. (\*)

(\*)Ale hau itxi zenean **Gaztetxeko Jai Egitaraua** ez zegoen zeharo zehaztuta. Beraz, adi egon!



1957. (S. Arina)

## Jai Zoriontsuak igaro ditzazuela!!

ALE HAU GAUZATZEKO ERABILI EGUNKARIAK

1890-1900, El Anunciador Vitoriano

1900-1915, La Libertad

1916-1930, Heraldo Alavés

1931-1966, Pensamiento Alavés

1967-1977, Norte Expres

1978, La Gaceta del Norte

1977tik aurrera:

Egin (1977-1997), Deia, El Diario Vasco (1980), El Correo

Español (1986), Egunkaria (1991), Euskadi Información

(1998), eta egungo egunkariak (Egunkaria, Gara, El

Periódico de Alava...-1999-2000-).

\*Jaletako argazkiek ez diote beti ordena

kronologikoari eusten. Gaien arabera ere kokatu dira.

## 1884-1889

1884. urtean, ordura arte irailean ospatzen ziren hiriko festak, abuztura pasako dira. Garaiotan, antza, ez ziren giro handiko festak izan, El Anunciador Vitoriano egunkariak aipatzen duen legez. Eta 1887.ean, eguzkitan 40 gradu, eta Geltokiko kale zaharrea, Daton alegia, urik ez!! Urte berean ere, jaiak ia izoratu zituen Viana dendan hasi eta 14 pertsona zauritu zituen San Antonio kaleko suak. Aipagarria ere "Veloz Club Vitoriano"-k Floridan 1888an antolatu lehen txirrindulari lasterketa.

## 1890

La Florida parkean dagoen kioskoa urte honetan jarri zuten, horretarako 4.995.- pezeta gastatu zituztela. Ordura arte jai egunetan musika jotzen zuten militar bandek ohol-tza baten gainean egiten zuten. Oholtza baxua zenez mutikoek musikariei lurra eta animaliatxo hilak botatzen zizkieten, agintari militarrek eta Udalak errespetua eskatu zuten arte.

## 1891

1891ko abuztuaren 1eko El Anunciador Vitoriano egunkarian horrela dio iragarki batek: "Sorprendente", 27 eta 25 urteko bi ahizpa, bata 29 hazbeteko altuera eta 10 kilo pisatzen ditu, besteak, berriz, 300 libra eta 2 metro. Etorri Bilbo plazara ikustera. Sarrera 20 zentimo; ume nahiz graduatu gabeko militarrentzat, 10 zentimo.

## 1892

Berrien sailean El Anunciador Vitoriano-k aipatzen du abuztuaren 6an Sevillako artzapezpikuak Gasteizko Niño Jesus, neskentzako ikastetxea izango zenaren lehen harria jarri zuela.



## 1893

Urte honetako abuztuaren 9ko El Anunciador Vitoriano-ren azala erdi hutsik agertzen da; hutsunea marra luze batek betetzen du eta horrela dio: "tachado". Artikuluaren izenburuak dira agertu letra bakarrak: "¡Viva Vitoria!" eta "¡La verdad sea dicha!"... ?!?!?

## • 1884-1895 •

### 1894

Bi orri besterik ez zituen garai-ko egunkari honetan Zezen-plazan zegoenaren berri ematen da. Pankarta antzeko batek horrela dio: "Vascongados entusiastas devuelven saludo a sus queridos hermanos navarros". Beste tendiduan: "Alava", "Viva la Unión Vasco Navarra" eta "¡Vivan los Fueros!".

### 1895

Jaiak ondo pasatzeko eta dirua gastatzeko garai ona den heinean, horrela saltzen du garai-ko iragarki batek bere produktua: Garagardo ingelesa, edanez gero jangura on, sabela ondo kontserbatuko duzu eta sakon egingo duzu lo. Goizero esnatuko zara animo eta osasun handiagok eta urte askotan biziko zara gararado honen ezaugarri higienikoari esker.



Barrakak (C. Yanguas)



Barrakak Bilbo plazan (1917)

## 1896

Garaiko egunkariak letra txiki eta irakur-gaitzaz gain, letra handiko iragarkiez besterik ez dira osatzen. Ez da irudirik erabiltzen, asko jota josteko makinak, ardo onak edota ilea hazteko likidoak iragartzen dituzten marrazkiak agertzen dira. Hori dela eta, urte honetako abuztuaren 5eko El Anunciador Vitoriano egunkariaren azalean dagoen litografia benetan harrigarria da; antza denez, gaiak horrelakorik merezi du: "Salve Virgen de La Blanca".



## 1897

Abuztuaren 9ko egunkarian "Muerte de Cánovas" izenburuaz Ministroen Aholkularitzako Presidentearen hilketaren berri ematen da; bere izena esan nahi ez duen gasteiztar batek hiltzailea detenitu duela aipatzen da bertan. Hortaz, hurrengo eguneko egunkarian orrialde oso bat hilketari eskaintzen diote ("arma homicida", "premeditación", "como se supo en Vitoria",...). Paragrafo batean gorpua Gasteiztik pasako dela aipatzen bada ere, "última hora" dioten beste batek ibilbidearen aldaketaz informatzen du, Zumarragatik Madrilera eramango dutela zuzenean.



1896-8-5

## BLUSEN NONDIK NORAKOAK

Blusen jatorriari buruz ugari idatzi da, baina noiz edo nola jaio ziren zehazterik izan gabe. 1878ko aipamen batek dio Gasteizen izan den lehen Zezen-plaza iraunkorreko 8. eta 9. tendiduetan "txapel gorriko gazte euskaldunak" izan zirela. Zezen-plaza hura "Resbaladero" a, Posta kalea eta Bake kalearen artean zegoen.

# Gurean publizitatea egiten dutenek ere jai zoriontsuak opa dizkizuite



**GORETTI**  
**ILEAPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK  
LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Eguzkitan, astalarenetik ostiralera

**JANTOKI**  
**BEGETARIANOA**

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL: 945 27 68 33



**Izozkiak**



Obren egite  
eta zuzentzea

**ALTUNA Estudioa**

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30



Imprenta / Inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦

Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ



**ZURE**

**AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16

Tfnoa.: 945 28 28 39

01002 Gasteiz

**6 HILABETERAKO**  
**UKIPEN - LENTEAK**

**14.900<sup>PTAN</sup>**  
**BAKARRIK**

**89,55€**

**Multilens Pack Berria**  
**Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI**

Multipackean hauek sartzen dira:  
Hilean behin aldatzeko Multilens lenteen 2 kaxa, Multidisoluzio bakarreko  
edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
**1a**

**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**

**BAUSCH & LOMB** **CIBA Vision**

3 hilabeteen ordaindu errekar gurik gabe  
[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)

Promozioak 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo da.



Asto lasterketa, "El Polvorín"etik irtenda (Arque, 1965-7-25)

## 1901

1901.eko abuztuaren 3an La Libertad egunkariak "De ayer a hoy" sailean, berri laburrez osaturikoan, festen hasierarekin hurrengo egunerako hirian izango den kanpoko jendearen etorrera eta jai giroa aurreikusten ditu eta horrela dio: "no habrá pues más remedio que divertirse lo que se pueda buenamente".

## 1902

La Libertad egunkariak dokumentazio saila dauka bere orrietan; tarte txiki bat "Vitoria Histórica" izenaz. Jaietan kanpotarrek gure hiria ezagut zezaten La Casa del Cordón, El Seminario de Agirre, La Iglesia de Santa María, El Salón de sesiones... aipatu eta deskribatzen ditu. Antza denez, jende asko eta aurpegi ezagun asko zetozen La Blanca-ra.

## 1903

Abuztuaren 6ko Langileen Lehiaketa ohikoaren sari banaketaren atzerapenaren berri ematen da abuztuaren 5ean La Libertad-en. Sariak igandean banatuko zituzten Eduardo Dato eta Iradierrek.



La Libertad (kontrazala). 1903-8-4

## 1904

Abuztuaren 9an ohikoa ez den letra handiagoko titularrak dio: "El Rey en Vitoria". Trenez dator Asturiaseko printzearekin batera eta bere omenez espreski kaleak dekoratu dituztela dio egunkariak. Gaztelako ateko sarreran arku handi batean: "Langileen Lehiaketa"; erregeak inauguratuko du aurtengo txapelketa.

## 1905

Jaiak jai, alegrantziak baretzen gaituela ere jakina da. Gauzak horrela, abuztuaren 6ko egunkarian horrelako iragarria agertzen da: "50 pezetako biletea galdu da Florida kaletik Foru kalera doan tartean, topatuz gero Administrazioan itzuli eta sarituko da".

## 1906

Emakumeei zuzendutako iragarkia irakur daiteke abuztuaren 4an La Libertad-en. "Emakumeentzat: Santiago kaleko kortse-dendan modelo dotorezko kortseak jaso ditugu; dotoreak izateaz gain erosoa eta higienikoa ere badira. Prezio hitzartuak".

## 1907

"¡Hombre de Dios!" izenburuko iritzi artikulua eta editorialaren bitarteko idatziak irakitzeko dute uztailaren 29ko alea. La Libertad-ek El Heraldo Alavés kritikatu du oso modu zuzenean, informazioa berandu kaleratzeaz gain beraiei kopiatu izanagatik; gainera, antiklerikalak eta "pardillos" deitzen die.

## 1909

Abuztuaren 3a izanik, La Libertad egunkariak beren irakurleei barkamena eskatzen die jai-egitarau ofiziala ezin izateagatik eskaini; antzadenez, beren errua izan ez zik, Udalak ere argitaratu ez duela esaten dute. Bestetik, jada tradizionaltzat jotzen zen Florida Parkeko dantzaldia ez da aurrera eramango aurten, Casino Artista Vitoriano-ko Zuzendaritza Batzordeak horrela erabakita.

## 1910

1910.eko abuztuaren 5ean eta 7an Zezen-plazan zezenketa iragarrita egon arren, azken orduko albisteak Gran Cirque Internacional izan-go dela bertan dio. Hori dela eta, prentsa-tarteki batek zezenketa ez egotea gaitzesten du, eta hainbat enpresari saiatu diren arren ezinezkoa izan dela aipatzen du egunkariak.



1910-7-30



Barrakak Cervantes ibilbidean (S. Arina, 1956)

### 1911

Luis Dorao y Merino, La Libertad egunkariko zuzendaria epaiketara deitua izan zen La Gaceta del Norteko zuzendariari, Enrique Oleari, idatziz egindako irain larriengatik. Epaileak behin-behineko askatasuna egozten dio Dorao y Merinori eta 1.000.- pezetako fidantza ordaintzera derrigor-tu.

### 1912

Emakumeei zuzendutako garaiko iragarki baten esanetan: "gazte ezkonduak, ezkongabeak, bertigoak duzuenak, aurpegi zurikoak, kolore gabeko ezpain, oin hotzak eta odol pobrea dituzuen horiei, jakin ezazue zuen gaitza Anemia dela, eta zuen odola aberats dadila PINK PILULAK hartu! (kaxa 4 pezetan eta 6 kaxa 21 pezetan)".

### 1913

El Noticiero Bilbaino-k bere berri lokaletan dio euriaren erruz zezenketa, pilota eta txirrindularitza bertan behera gelditu direla egun horretan (abuztuak 5), eta pena handia adierazten du 1913ko lehen zezenketa izango zena eguraldi txarra dela eta eteteagatik. Badirudi eguraldiak paper inportantea duela urtero jaietako egitarauan, garaiko prentsan ekaitzaren arriskua askotan komentatzen baita.

### 1914

La Libertad egunkarian horrelako iragarkia, besteak beste, agertzen da: "Horzdurak: onak eta merkeak, 10 urtez bermatuak; osoak 100 pezetan, hortz solteak, prezio konbentzionalak. 30 urteko praktika. Min gabeko ateratzeak".



La Libertad (kontrazala) 1915-8-5

### 1915

Iragarkirik iragarki, "Interesgarria: Rubio eta Jaureguik izandako azken orduko ezberdintasunak direla eta, Hortz-Kabinetearen burua Jauregui Jauna izango da. San Frantzisko kalea 14, bis, 1.a"



Blusak kotxe batean (C. Yanguas, 1934)

# NONBAIT

ZURE  
EUSKAL  
DENDAK

**Kamisetak:** Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

**Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak**

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

**GASTEIZ**

**UZTINTZA**  
**KERAMIKA TAILERRA**

**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI**  
**ETA**  
**OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutsi), 27  
Tfnoa: 945 26 07 10  
GASTEIZ

**AMILAMIA**

*arropa eta osagarriak*



Pintore kalea, 17  
tfnoa:  
945 27 40 09  
GASTEIZ



arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako**  
**jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)  
Tfnoa: 945 25 03 52

*Confecciones*  
**Pinedo**  
**JANTZIAK**

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**PLATER MIMATUAK...**

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA  
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana  
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ  
Telefona: 945 26 38 74



**BEIRATE**  
**ESTUDIOA**

MIKEL  
DELIKA

Txikita kalea, 1  
Tfno. 945 14 64 10  
GASTEIZ

**Argazki - Estudioa**

**Erramun**

Heraclio Fournier, 23  
Tfno: 13 71 02  
01006

Askatasun kalea, 5  
Tfno: 26 19 91  
01004

**HEGOALDE**  
**Euskaltegia**



**Matrikula zaitetz !!**

Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ


**ARTEPAN**



**Artisau**  
**Okindegia eta**  
**Goxotegia**

Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

**RAFA TEJA ATELIER**



"Zetazko eta  
kotoizko ebunak  
eskuz margotuak"  
- ZAPIAK -

**Arantza Arregui**  
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59



Erraldoiak eta jendea txupinazoaren zain -Plaza Berrian zena- (E. Guinea, 1929)

## 1917

1917.eko abuztuaren 6an Gasteizko Batailaren monumentua altxatu eta hiriari eskaintzen zaio (... eta ez al zegoen ba plaza politago monumenturik gabe?), Guillermo Lazaro bilbotarrak ikusmin handia sortutako Arabako Txirrin-dularitza itzulia irabazten duen egun berean.

## 1918

Urak bustia hasi zituen jaiak Gasteizek, hainbat ekitaldi zailduz. Egunak pasa ahala, eguraldiak hobera jo zuen.

## 1919

Celedon aldizkariak bere bigarren alea kale-ratzen du. Celedon jaiei buruz hitz egiten duen aldizkaria da.

## 1920

Kanpotarren etorrera inoiz baino handiagoa izan zen urte honetan, Herald Alavés egunkariak dionaren arabera. Adinekoak eta amak festetako protagonista bihurtuko ziren eta merezitako omenaldiak jasoko zituzten.

## 1916

Jaiak beltzez jantziak hasi ziren, uztalean Frantziako Vichy hirian Heraclio Fournier pertsonaje gasteiztarra zendu baitzen. Urte horretako jaietako protagonista Madrilen gerora anarkistek hilko zuten Eduardo Dato izango da, ordua arte "Geltokiko kalea" zeritzan kaleak bere izena hartuko baitu. Kale horretan burutuko dira jaietako jarduera gehienak.



1919-8-4



## ERRALDOIAK

1917ko jaietan 4 erraldoi eta 4 buruhandiri ongi etorria egin zitzaizkien; ordua arte Gasteizek horrelakorik ez zuen-eta. Erraldoiek Arabako eskualde ezberdinetako gizonezko eta emakumezkoen itxura zuten, batez ere Aramaioko harana eta Mendialde ingurukoak. Gauzak horrela, Isaac Diaz Ibañez-ek Aramaioko bikotea egin zuen: Baserritar jauna (El Aldeano) eta Baserritar andrea (La Aldeana). Madrilgo Losada artistari Arabako Mendialdeko bikotea egokitu zitzaion, Mutikoa eta Neskaitila (el Mozo y la Moza).

## 1921

Jaiak Maroko-ko gertaeren itzalpean ospatu ziren. Jaietako ekin-tza nagusia behar zuen Injineruen Bandak eskainitako kontzertuak ez zuen arrakasta handiegirik izan. Antza denez, kontzertua emateko ordu berantiarra izan zen arazoa, ordu horietan hotza izaten baitzen Zezen-plazan.

## 1922

Jaiak istiluekin hasi ziren. Poliziak hiru pertsona eraman zituen atxilotuta San Frantzisko aldatatik. Hirukoteak poliziarekin joateari uko egin zion eztabaidari hasiera emanez. Istilu larrienak jendeak hirukotearen alde egin zuenean hasi ziren.

## 1923

Urte honetan kirol ekin-tzek lehen mailako pape-ra jokatu dute, ohiko ekitaldiei Deportivo Alavés-ek antolatutako futbol partiduak, lasterketak eta abar gehituko baitzaizkie. Futbol partiduak Cervantes ibilbideko kirol zelaia inauguratzeko baliogarriak izango dira.



Kaleko giroa (Arque, 1968)



Celedon aldizkaria. 1922. urtea

## 1924

Horrela dio Heraldo Alavés-en agertu iragarki batek: "¡Vitorianos atención!, zezenketara joan ahal izateko eta egunero dantzan ibili ahal izateko elika zaitezte Gaiñica Guipuzkoana Arrautzadendan saltzen diren arrautza freskoekin".

## 1925

Mendizorrotzeko belodromoaren inaugurazioa, abuztuaren 4an. Bestetik, "Udalak neska politentzat xalak oparitzen ditu. Neska polit beste xal egongo ote da?". Automobilaren lehenengo feria egiten da urte honetan.



## ZELEDON

Zeledon 1917tik aurrera buruhandi baten tankerara irudikatua zen. 1918. urtean, berriz, musika-lan baten izenburua esan nahi-ko du Zeledon izenak eta, besteak beste, 1923an istoriotxo komi-ko batean pertsonifikatua izango da. 1957ko abuztuaren 4an "Los Tímidos" koadrilakoek "Pepito" panpina hartu eta San Migeleko dorreraino eraman zuten 'jaurtiketa' egiteko prest (jai-tsieraren 1. saiakera). Urte hartan Pepito panpinaren giza-ordez-kari 'blusa' bat aukeratua izan zen. Gerora, Zeledon ospetsuare-na egiteko, Jose Luis Isasi.

# • 1926-1930 •

GASTEIZKO JAIAK: urterik urte, berrikeri berri, irudiz irudi. 1884-2001

## 1926

Horrela aritzen da abuztuaren 8ko egunkaria Jose Mardones jaunari buruz: "Jose Mardones abeslaria Fontetxa bere herrira doa atsedean hartzera; bera agurtzera Iglesias alkate jauna, Jaien presidentea den Perez jauna, Alabardarien zuzendaria, lagunak eta zaleak gerturatu dira".

## 1927

Garai honetako egunkariak 4 orrialde dauzkate jada (orain arte 2), gaiak gehiago jorratzen dira eta gero eta iragarki gehiago barneratzen dira. Sailak ere ugari eta sakonagoak dira; Heraldo Alavés-a adibidez: Vida local, gacetillas y sucesos, noticias deportivas, crónica religiosa... Urte hauetan ere orain arte azaldu zezenketa agenda toreatzaileen argazki eta guzti agertzen da.



Karroza, Isaac Diez-ek diseinaturia (E. Guinea, 1930-8-6)

## 1928

"Euskalerriaren alde" deituriko aldizkariak "Certamen de Cultura Vasca" delakoan Ricardo de Apraiz saritzen du "Retablo de la Iglesia Parroquial de Yurre-Alava" izenburuko lanagatik.

## 1929

Jaietako pertsonaje nagusiak egun osoan gasteiztarren belarriak asetu zituzten Deportivo Norte-ko txistulariak izan ziren. Atsedetik hartu gabe txokorik txikienetako ekitaldietan ere aritu ziren. Oso harrera ona izan zuen Donostiako Udal Bandak ere.

## 1930

Jaiak kartzela probintzian ere ospatu ziren urte honetan. Batetik, 5 musikarik jo zuten: "espetxeratuek oso kontent txalotu zuten bertan izandako musika egitarau egokia. Gero, Udalaren eskutik honako afaria izan zuten presoek: zopa, legatza frijitua, txahalki xerrak entsaladarekin, fruta, ardoa, koñak-a eta puruak".

## BALKOI ETA GUZTI...

Zeledon pertsonajearen jatorria ez dago batere argi. Egun Celedonio Anzola Garcia de Andoainekin identifikatzen duen teoria ere badago. Gizon hau XVIII. mendearen bukaeran Zaldudon jaio omen zen, beranduago Gasteiza bizitzera etorri zelarik. Igeltseroa izanik, Venancio del Val idazleak gogoratzen digunez, "lanbide honek kantan aipatzen den lehieta eta balkoidun etxe berria eraiki eta zaharberritzeko aukera eman zion".

**El tiempo de las excursiones**

Este es el tiempo delicioso para los excursionistas en automóvil. Y esta es la ocasión de que usted posea un coche moderno, elegante, fuerte, confortable. Vaya a la Agencia FORD más próxima, vea el modelo Torpedo 2 plazas e infórmese del precio; examine el acabado de la carrocería, compare la pintura con la de cualquier otro automóvil y quedará convencido de que solamente FORD ofrece un espléndido coche por un precio moderado.

**Ptas. 4.250**  
Con arranque eléctrico, **4.500**  
Fábrica Barcelona

LA CADAVANA "FORD" QUE SE ENCUENTRA EN ESTA CARTELERA OFERTE A USTED LA OPORTUNIDAD DE EXAMINAR Y PROBAR LAS CALIDADES DE LOS ÚLTIMOS MODELOS DE ESTA EXCELENTE MARCA

**Ford**  
FORD MOTOR COMPANY  
S.A.E.  
BARCELONA

Heraldo Alavés. 1926-8-7

# ZURE HARATEGIAK



*Jose Luis*

## GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



## XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi*

*samurretan espezialduak*

# Garagardotegia

ASTE OSOAN

IREKITA

(Astelehenak  
izan ezik)

*Gerentzia  
berria*

## La Blanca



\* Oilasko  
erreak

\* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz

**adaka**  
**madinabeitia**



## Floridako altxorra !

# 35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

### 1931

Umeek haientzako pelikulak izango dituzte ikusgai jai hauetan. Bestetik, abuztuaren 8ko Heraldo Alavés-ek zenbait gaztek sortu zaratak kexa ugari probokatu zituela aipatzen du.

### 1932

“El público dice...” sailean suzieren inguruko kritika egiten da. Badirudi suzieren ohiko lekua aldatu zuela Udalak eta horren erruz ez zirela entzun. Horretaz gain, Donostiakoak kopiatzea leporatzen diote, “aulkiak jarritz”.



Jaietako kabalgata (E. Guinea, 1930)



Udalaren kabalgata (E. Guinea, 1930)

### 1935

Abuztuaren 2ko arratsaldean tabernarien lasterketa egin zen. Baldintza, gasteiztarrak izatea. Froga, honako hau eramatea erretiluan: botila bat ur, hiru kopa likore, kopa bat ur; eskubiko eskuan, berriz, botila bat ur. Irabazleak 125 pta. irabaziko zituen, bigarrenak 75, hirugarrenak 30 eta laugarrenak 20.



Pensamiento Alavés. 1935-8-2

### 1933

“Hegan egin al duzu inoiz? Ez baduzu inoiz egin etor zaitetz Lakuako aerodroma eta 25 pezetan aukera izango duzu. Seguruak eta fidagariak dira hegazkinak, uztailean frogatuak izan baitira Iruñean eta Tafallan, 500 lurreratze baino gehiago egin dituztela”.

### 1934

Alde batetik, abuztuaren 6rako Banden arteko lehiaketa prestatzen du Udalak. Bestetik, egun bereko zezenketa bertan behera utzi behar eguraldi txarra dela eta.





1936-8-4



1936-8-4

## BLUSAK ETA GERRAOSTEA

Espainiako Gerra Zibilak (1936-39) hutsune bat sortarazi zuen 1941 arte; urte horretara arte ez baitziren jaiak ofizialki berrezarri. Jose Lejarreta Salterain orduko alkatea zenak festen alde egin lanagatik "blusen alkatea" izendatua izan zen. Lehendabiziko blusa koadrila 1925.ean sortutako "El Himeneo" izenekoa izan omen zen.

Blusek janzkera dute ezaugarri nagusia, atorrak alegia. Horien erabilerak artisau eta gremioetan du sorrera, antza, koloreen arabera lanbidea ezberdinduz. Beste teoria batek dioenez, gizarte-maila aberatseko gazteak zezenetara joateko arropa dotorearen orde, blusak erabiltzen hasi ziren, kazoletan zeramaten askaria jatean zikintzeko beldurrez ez ibiltzeko. Beraz, hasiera batean "ondo ikusia" ez zegoenez, zezenketara joateko besterik ez zuten janzten eta gauzez neskekin dantzatzera joaten zirenean kentzen zuten.

**1936.** urtean Gerra Zibilak eztanda egingo du eta honek Gasteizko festetan eragin zuzena izango du, jakina: ez da jairik izango. Urte hauen buruan, ordea, festak Andre Maria Zuriaren omenezko ospakizun katolikoetara mugatuko dira eta ospakizun profanoak alboratuak izango dira, egindako ekitaldi eskasak ezkutuan eginez edota "Espainaren alde" aitzakiaz.



Blusak beren pankartarekin 1934. urtean kalejiran (C. Yanguas, 1934)

# GASTEIZKO JAIAK





ncipal antzokian  
VERA SIN SUEÑO”.

moso kulturunean  
PLAZA.

ntik... Plaza berrira eta  
rrrena.

n Dantza eta Txulalai.  
ean  
ogestion, SL piroteknia,  
n  
nalak.  
VERA SIN SUEÑO”.

ua: PACO CALONGE Y CIA,  
ean eta Alde Zaharrean  
DINAK eta KIRRINKA fanfarreak.  
ean  
a musika-giroa.

ORENO.  
IMELETA.  
n  
OKERRAK.  
eiz].

7,  
A

lekuan  
aria Zuriaren Saria.

n  
una, eta LORE-ESKAINITZA.

reziak”

staldia, “Andre Maria Zuria”.

Zuriaren irudiaren

, Zeledon Txikik eskainia.  
a ibilbidean  
artisautza azoka.  
n  
DEIA eta ZELEDON TXIKIREN

ZALDI ETA TXOTEN konpartsa

ERRIOXA txaranga.

staldia, “Andre Maria Zuria”.

auzoan  
ERRIOXA txaranga.

talakua, txirrika, zubi tibetarra,  
nikoa, aire-bira eta jolas-zelaia.  
ko Kondearen plazan

a kalean  
(MOKO ETA FLAX [euskaraz].  
ian  
RULIA hirukotea.

ILIA eta BASTIDAKO MARRATE

TEIZTARRAK”.

KITIXA ESKOLA.  
ean  
MUSIKA BANDA.

**13:30 • Amarika plazan**  
Musika arabiarra: BOGHAZ taldea.

**Aihotz plazan**  
Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, J.M. Juaristi, Ekaitz Goikoetxea. Gai jartzailea: I. Izagirre.

**Peñafloridako Kondearen plazan**  
Txotxongiloak: TITIRITEROS DE BINEFAR (euskaraz).

**17:00 • Plaza Berritik Zezen-plazara**  
Zezenetara joatea.

**17:00-20:30 • Prado parkean**  
ABENTURA LEKUA. Eskalalekua, txirrika, zubi tibetarra, goming, zezen mekanikoa, aire-bira eta jolas-zelaia.

**17:30 • Plaza Berritik, Eduardo Dato eta Florida kaleetan barrena, Prado parkera**  
Blusa txikiak jaira joatea, GESALTZAKO fanfarreak lagunduta.

**18:00 • Zezen-plazan**  
HIRUGARREN ZEZENKETA. ENRIQUE PONCE, JOSE ANTONIO MORANTE DE LA PUEBLA eta JULIAN LOPEZ “EL JULI”.

**Probintzia plazan**  
Jotak: ARAGON CANTA.

**Prado parkean**  
TXIKIENTZAKO FESTA HANDIA: **18:00:** Haurrentzako antzerkia: TEATRO MUTIS, “Crispin y el Ogro”. **18:00-20:00:** Gargantua.

**19:00 • Amarika plazan**  
Jazza: BANJA LUKA.

**Aihotz plazan**  
DANTZA ASKATU TXAPELKETA.

**19:00-22:00 • Florida parkean**  
Dantzaldia: CATAMARAN.

**20:00 eta 23:00 • Principal antzokian**  
“UNA NOCHE DE PRIMAVERA SIN SUEÑO”.

**20:00 • Montehermoso kulturunean**  
Folk eta rocka euskaraz: MIKEL TELEERIA.

**Prado parketik Plaza Berrira**  
Blusa txikien itzulera.

**20:30 • Zezen-plazatik... Plaza berrira eta postetxe plazan barrena.**  
Zezenetatik itzultzea.

**Aihotz plazan**  
DANTZA PLAZAN. Larrain Dantza eta Txulalai.

**23:00 • Mendizabalean**  
3. SU ARTIFIZIALAK: Tomas, S.L. piroteknia.

**OGETA pilotalekuan**  
ESKU PILOTA, profesionalak.

**Principal antzokian**  
“UNA NOCHE DE PRIMAVERA SIN SUEÑO”.

**Probintzia plazan**  
Umorea eta beste: VIAJAR Y TODO ES EMPEZAR.

**Txosnetan. Xenofobiaren aurkako eguna**  
Kontzertua: BAD SOUND SYSTEM  
FERMIN MUGURUZA DUB MANIFEST.

**23:00-3:00 • Erdialdean eta Alde Zaharrean**  
Musika kalean: EZBERDINAK fanfarrea.

**23:30 • Olagibel kalean**  
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa

**00:00 • Foru plazan**  
Kontzertua: VAGON DE COLA eta IXO RAI.

**Arka plazan**  
Gau-jala: GRAND PRIX.

**Aihotz plazan**  
Musika-ikusbizia: ALAITZ ETA MAIDER.

**00:30 • Plaza Berrian**  
BELISSIMA orkestra.

**ABUZTUAK 8,  
ASTEAZKENA**

**9:00 • San Migel parrokian**  
Blusa beteranoak: meza, Andre Maria Zuriari loreak eskaintzea, ohorezko aurreksua eta argazkia egitea.

**10:00 • Plaza Berrian**  
BANDA ETA TXARANGEN DEIA, blusa beteranoekin.

**11:00 • Ogeta pilotalekuan**  
ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren Saria.

**Zezen-plazan**  
Bigantxak

**Foru plazan**  
Arabako Boloen erakustaldia, “Andre Maria Zuria”.

**11:30-15:00 • Florida ibilbidean**  
Gastronomia eta herri artisautza azoka.

**12:00**  
ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN konpartsa

**Vicente Goikoetxea kalean**  
Pailazoak: TOM eta CELI.

**Peñafloridako Kondearen plazan**  
Gargantua.

**Foru plazan**  
Arabako Boloen erakustaldia, “Andre Maria Zuria”.

**Plaza Berrian**  
BEREZIAK gastronomi lehiaketa.

**12:00-14:00 • San Martin auzoan**  
Musika-giroa: GESALTZA fanfarrea.

**Prado parkean**  
ABENTURA LEKUA. Eskalalekua, txirrika, zubi tibetarra..

**12:30 • Plaza Berrian**  
Kale antzerkia: ZIRKO TTIPIA (euskaraz).

**San Bizente parrokian**  
Organo kontzertua: JOSE SANTOS DE LA IGLESIA.

**Aihotz plazan**  
UDAL FOLKLORE AKADEMIA eta ZUIAKO TRIKITIXA ESKOLA.

**Arka plazan**  
Kontzertua: AGURAINGO MUSIKA BANDA.

**Probintzia plazan**  
Beteranoentzako VI. Dantza Lehiaketa.

**13:00 • Florida parkean**  
Kontzertua: GASTEIZKO MUSIKA BANDA.

**Foru plazan**  
Herri kirolak.

**13:30 • Amarika plazan**  
Errusiako folk musika: GALICIA taldea.

**Aihotz plazan**  
Bertsolariak: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Ruben Sanchez. Gai jartzailea: Eñaut Agirre.

**Peñafloridako Kondearen plazan**  
Txotxongiloak: KOLUINS DOWN (euskaraz).

**17:00 • Plaza Berritik - Zezen-plazara**  
Zezenetara joatea.

**17:00-20:30 • Prado parkean**  
ABENTURA LEKUA. Eskalalekua, txirrika, zubi tibetarra, goming, zezen mekanikoa, aire-bira eta jolas-zelaia.

**18:00 • Probintzia plazan**  
Jotak: VOCES DE NAVARRA.

**Zezen-plazan**  
ABONUKO LAUGARREN ZEZENKETA. OSCAR HIGARES, JUAN JOSE PADILLA eta JESUS MILLAN zezen-hiltzaileentzat.

**18:00-20:00 • Peñafloridako Kondearen plazan**  
Gargantua.

**19:00 • Principal antzokian**  
Jazza: DIXIEKLETA JAZZ BAND.

**Aihotz plazan**  
Arabako VII. Trikitilari Txapelketa eta Arabako Haur Trikitilarien V. Txapelketa.

**19:00-22:00 • Florida parkean**  
Dantzaldia: EMBRUJADA.

**20:00 eta 23:00 • Principal antzokian**  
“LA FIEBRE DEL HENO”.

**20:00 • Montehermoso kulturunean**  
Jazza: SANT PAU 44.

**20:30 • Zezen-plazatik... Plaza berrira eta postetxe plazan barrena.**  
Zezenetatik itzultzea.

**Aihotz plazan**  
DANTZA PLAZAN. Larrain Dantza eta Txulalai.

**23:00 • Mendizabalean**  
4. SU ARTIFIZIALAK: Valete-Pir, SL piroteknia.

**OGETA pilotalekuan**  
ESKU PILOTA, profesionalak.

**Principal antzokian**  
“LA FIEBRE DEL HENO”.

**Probintzia plazan**  
Umorea eta beste: REIR NO CUESTA EUROS.

**Txosnetan. Gaztetxearen aldeko eguna**  
Kontzertua: EL COMBO LINGA (Madrid) eta OJOS DE BRUJO (Barzelona). Fusio eritmoak

**23:00-3:00**  
**Erdialdean eta Alde Zaharrean**  
Musika kalean: EZBERDINAK fanfarrea.

**23:30 • Olagibel kalean**  
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa.

**00:00 • Foru plazan**  
Kontzertua: LOS PANCHOS.

**Arka plazan**  
Gau-jala: PETANCA.

**Aihotz plazan**  
Kontzertua: OSKORRI.

**00:30 • Plaza Berrian**  
CARRUSEL orkestra.

**ABUZTUAK 9,  
OSTEGUNA**

**11:00 • Ogeta pilotalekuan**  
ESKU PILOTA, Andre Maria Zuriaren Saria.

**Zezen-plazan**  
Bigantxak

**12:00 • Plaza Berrian**  
BANDA ETA TXARANGEN DEIA.  
ERRALDOI, BURUHANDI, ZALDI ETA TXOTEN konpartsa.

**Vicente Goikoetxea kalean**  
Pailazoak: POPI eta ZARRATRAKO (euskaraz).

**Peñafloridako Kondearen plazan**  
Gargantua.

**Zaramaga eta Pilar auzoetan**  
Musika-giroa: ARABAR ERRIOMA txaranga.

**Foru plazan**  
Arabako Boloen erakustaldia, “Andre Maria Zuria”.

**12:00-14:00 • Txagorritxu auzoan**  
Musika-giroa: GESALTZA fanfarrea.

**Prado parkean**  
ABENTURA LEKUA.

**12:30 • Plaza Berrian**  
Kale antzerkia: T’OMBUGO.

**San Bizente parrokian**  
Musika klasikoa: CAMARETA ANTIQUA.

**Aihotz plazan**  
Trikitixa: GASTEIZ TXIKI TRIKITIXA ESKOLA.

**Arka plazan**  
Kontzertua: ARAIAKO MUSIKA BANDA.

**13:00 • Foru plazan**  
Herri kirolak.

**Florida parkean**  
Kontzertua: GASTEIZKO MUSIKA BANDA.

**13:30 • Amarika plazan**  
Mexikoko musika: MARIACHIS REAL SANTA CECILIA.

**Aihotz plazan**  
Bertsolariak: Aitor Mendiluze, Jon Maia, Amets Arzallus, Asier Okamendi. Gai jartzailea: I. Landa.

**Peñafloridako Kondearen plazan**  
Txotxongiloak: XILIPURDI (euskaraz).

**17:00 • Plaza Berritik zezen-plazara**  
Zezenetara joatea.

**17:00-20:30**  
**Prado parkean**  
ABENTURA LEKUA.

**18:00 • Zezen-plazan**  
NOBILLADA.

**Probintzia plazan**  
Jotak: HERMANOS AÑOZ.

**18:00-20:00 • Peñafloridako Kondearen plazan**  
Gargantua.

**19:00 • Foru plazan**  
Sagardotan egindako LUKAINKA DASTATZEA.

**Postetxe plazan**  
Musika-giroa: ARABAR ERRIOMA txaranga.

**Amarika plazan**  
Jazza: UHNE.

**19:00-22:00 • Florida parkean**  
Dantzaldia: ODEI.

**19:30 • Aihotz plazan**  
Dantza plazan: GASTEIZKO UDAL FOLKLORE AKADEMIA.

**20:00 • Principal antzokian**  
“LA FIEBRE DEL HENO”

**Montehermoso kulturunean**  
Musika: SAXTEIZ.

**20:30 • Zezen-plazatik...**  
Zezenetatik itzultzea.

**Aihotz plazan**  
DANTZA PLAZAN. Larrain Dantza eta Txulalai.

**23:00 • Mendizabalean**  
5. SU ARTIFIZIALAK: Zariagozana piroteknia.

**Probintzia plazan**  
Umorea eta beste: APLAUSO, Hermanos Añoz.

**23:00-3:00 • Plaza Berrian**  
STRADIVARIUS orkestra.

**23:30 • Olagibel kalean**  
ZORTZI ZEZENSUZKO eta musika-giroa: fanfarreak.

**1:00 • Txosnetan**  
Kontzertua: TONINO CAROTONE.  
Estilo berezia, Italiako giroan.

**Andre Maria Zuriaren plazan**  
JAI BUKAERA: ZELEDON AGURTU ETA IGOTZEA. AZKEN TRAKA, VALECEA-PIR, SL pirotekniaren eskutik.



# GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



## Xabier

**taberna**

musika ona  
eta giro ezin hobea  
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Euskara  
bultzatu  
nahi?...**

**945 22 21 53**

**BAR  
KLAKÉ**

KUTXA, 2  
TFN.  
143883



"Zure ametsak egia  
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4  
SOJO-ZOLLO • 01478 ARABA  
Tel/Faxa: 945 396 686  
[www.euskalnet.net/eskutxi](http://www.euskalnet.net/eskutxi)  
E-Mail: [eskutxi@euskalnet.net](mailto:eskutxi@euskalnet.net)

MERKURIO-KADMIKOAN  
%0a

CEGASA PILAK  
INDARTSUEENAK  
ETA  
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.  
Artapadura, 11 - Apdo. 355  
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

## ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz  
Tel-Fax: 945 26 46 43

**LIZARRALDE  
SOINYA**

945 226 977

**TXALAPARTA, S.L.**

**GASTEIZ**

SOINU PROFESIONAL • MEGAFONIA  
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

**LAGUN BAT BEHAR DA...**

- UME BAT ZAINDU ETA ETXEKO LANAK EGITEKO: 8 orduz (goizez eta arratsalde). TELEFONOA: 945 17 66 12
- 2 UME ZAINTEZKO: 9:00etatik 13:30etara, ABUZTUKO 2. HAMABOSTALDIK AURRERA. TELEFONOA: 945 13 45 26 (Ana)

## 1941

Abuztuaren 2an Pensamiento Alavés egunkarian oraindik ere gerraosteko berriak dira nagusi. Tarte txiki batek Andre Maria Zuriaren fidelek lorak jar diezazkioten deialdia egiten du. Blusak agertu arren urte honetan ez da Zeledonen jaitsierarik izaten, gerraren ondorioak oraindik ere hor nonbait antzematen.



Barrakak-"Txoke autoak" (Arque, 1957)

## 1942

Abuztuaren 4an Udalak ohar baten bidez jakinarazten du Pablo Martinez Zezen-plazako enpresariak La Blanca egunerako 10 zezen aterako dituela, nahiz eta horrek gastu handiak ekarri.

## 1943

Uztailaren 20an jadanik Pensamiento-k barraken eta zaldikomaldikoen heldueraren berri ematen du (Prado kalean eta Gaztelako atean jartzen ziren). Zezenketen kartela eta La Blanca-ko ekintza erlijiosoak ere egun honetako egitarauan aipatzen dira.



## 1944

Argazkian ikus dezakegun gehigarria kanpotarrei emateko helburuaz kaleratzen zen jai egunetan. Jakina denez, kanpotar ugari zetozen gure festez goatzera eta, hortaz, iragarkiak dira nagusi idazki honetan. Ez dira marrazkiak, baizik eta iragarkiari kalitate handiagoa eskaintzen dioten litografiak.

## 1945

Abuztuaren 8ko Pensamiento-k bere lehen orria Hiroshimaren eztanda egin duen bonba atomikoaren berri emanez irekitzen du. Egun berekoan, "Página de la mujer" delakoan edertasunaz eta Falangearen sukaldaritza eskolaz mintzatzen da. Jaiei dagokienez, Zezen-plazan boxeoak bere tarte izango du, kirolen artean gero eta garrantzi handiagoa lortzen doala.



Gehigarria. 1944-8-3



Pensamiento Alavés. 1949-8



Zeledon suziria piztuz Jaiei hasiera ematen: Txupinazoa (Arque, 1966)

## 1946

Dagoeneko Gasteizko jaiak gero eta inportanteago ari dira bilakatzen; herri bateko festak izan beharrean hiri garrantzitsu bateko jai bihurtzen ari baitira. Urte honetan Lola Flores bera etorriko da!



## 1947

Arratsaldeko 6etan Prado zelaian egin zen dantza erregionalen erakustaldiarekin bukatutzat eman ziren urte horretako festak. Prado parketik Floridaraino kalejiran eta zinema ekitaldi publikoarekin agur esan zieten gasteiztarrek 1947.eko jaiei.

## 1948

Ohiko Arrosarioaren prozesioa eta Manolete toreatzaileari eginiko omenaldia izango dira urte horretako ekitaldi nagusiak.

## TXUPINAZOA

Jaien hasiera ematen duen ohiko suziria 1947an jaurtiki zen lehenengoz Plaza Berritik. Bestetik, 1953an jaien hasiera ofizialki ezarri zen abuztuaren 4an arratsaldeko 6etan Plaza Berrian, eta horrela 1970.era arte iraun zuen, 1957. urtean suziria deituzetik Txupinazoa deitzera pasa zela. 1971.ean, berriz, eta lehenengoz, jaien hasiera Andre Maria Zuriaren plazak jasotzen du.

## 1949

Zezenzaleek horren gogotsu itxaroten zuten Litri toreadorea ez zen bere betebeharrak azaldu. Baina Zezen-plazan bai izan zena: Francoren emaztea...

## 1950

1950.eko abuztuaren 5ean elurra egin izan balu bezala Gasteiz zuriz jantzi zen Andre Maria Zuriari agurra egiteko. Kaleak zuritu zituen Andre Maria Zuria pasatu ahala jendeak bota petaloak izan ziren.



### 1951

Festa hauetan egin beharreko aireportuaren inauguraziorik egiterik ez zen izan, besteak beste, hotzak eta euriak baldintzaturiko lanen atzerapenen-  
gatik. Festa hasierako hotza ekiditzeko, ederki asko berotu zituzten kale-  
ak dultzainari eta txistulariek.

### 1952

Urte bitxia izan zen hau. Egunkariak ez zieten gazteei gehiegi erreparatu,  
aipamen gehienek urte horretako giroa animatuegia ez zela zioten behin  
eta berriz. Antza, garrantzitsuagoak ziren turisten kexak Florida kaleko  
"La Isla del Tortazo" zela eta. Izan ere, berritze-lanak zeuden kale horre-  
tan eta putzu batek pasatzea oztopatzen zuen.



Suziriak Matxetetik (J. M. Parra, 1955)



Dantzariak eta txistulariak (S. Arina, 1965-8-4)

### 1953

Gasteiztarrek puruaren keaz estaltzen dute hiria. Izan ere, urte honetako puru lehiaketan Ricardo Urbanok bere purua 60 milimetroetan utzi arte erretzea lortu zuen.

Urteak pasa ahala, geroz eta jende gehiago hurbil-  
tzen da Gasteizko festetara; lapurrak ez dira atzean geratzen eta asko negozioa-  
ren bila datoz. Festetako lehen egunean soilik, 18 izan ziren atxilotu lapurrak.

### 1954

Txiribil dantza taldearekin hasi zituen jaiak Gasteizek. Jai alaiak izan ziren, batik bat kirolarentzat, Alavesek 1. mailara igotzea eta arabar pilotariak Euskal Herriko Txapelketa irabaztea lortu baitzu-  
ten.

### 1955

Txori lehiaketa izan zen jai haue-  
tako ekitaldirik koloretsuena. Barrakak jartzeko tokiaren inguru-  
ko iritziek ere zeresanik eman zuten.





## APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

  
eusko  
alkartasuna  
[www.ea-euskadi.com](http://www.ea-euskadi.com)

**arabarrok euskarari BAI**



[www.gasteabertzaleak.com](http://www.gasteabertzaleak.com)



**ERROTA**  
**HORTZ KLINIKA**

**Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ**  
**Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390**  
**e-mail: [errotadental@euskalnet.net](mailto:errotadental@euskalnet.net)**

## 1956

Abuztuaren 1ean Ignazio Loiolako Deunaren eguna ospatzen da; bitxikeria moduan aipa daiteke orain arte ikusitako egunkarien artean lehenengoz irakur daitekeela izenburu bat euskaraz: "Gure patroia aundiari". Bestetik, erraldoi eta buruhandien konpartsari egin elkarritzaketak erraldioen neurriak eta pisuaematen dizkigu (1,90-2,85 m eta 44-53 kg bitartekoak).

## 1957

Los Tímidos blusa taldeak panpin bat (Pepito) jaitsiarazten du Plaza Berrira festei hasiera emateko (jaitsieraren 1.saiakera). Hurrengo urtean Zeledon izango den panpin honek ohitura luze bati emango dio hasiera.

## 1958

Kostata baina Zeledonek San Migeleko dorretik Plaza Berriraino jaitea erdietsi zuen. Ez dago ba zalantzarik, ohitura luze bati hasiera eman zitzaioa.

## 1959

Jaietan Alava Jeneralaren kalearen berritze lanekin jarraitzeaz gain bertan eraikitako iturria inauguratu zen.

## 1960

Xake partida biziduna egin zen Plaza Berrian. Jaiek ehundaka dantzari eta txistulariren partehartzea izan zuten; alardeak amaiera eman zien.



Pensamiento Alavés. 1958-8-5



Buruhandiak eta Gargantua (C. Yanguas, 1959)

## BERRIZ ZELEDON

"Nor da Zeledon?". Izenburu honekin ematen dio hasiera del Val jaunak antzinate gaur egun arte gure buruetan izan den zalantza argitzeko nahiari. 1958.ean aipatzen duenez, 1936 urteko egunkari batean sarjentu karlista bati egindako elkarrizketan Zeledon ejerzito karlistaren brigadista bat dela aipatzen da. Gure pertsonajea Koartangokoa izanik, Andagoian bizi zen. Baina informazio-iturri honek horrela diosku: "Zeledonen iloba zen 96 urteko emakumeak bere osaba oso jatorra eta gorra zela zioen, Zeledon Iturralde zela eta kantana aipatzen den etxea Zeledonen seme batek egin zela, eta ez Zeledonek berak, ziurtatzen zuen".

### 1961

Jose Luis de La Peñak txupinazoari buruz hitz egiten du esanez anaitasuna ekintza dela eta, aldi berean, erregionalismoa aldarrikatzen duela. Purua erretzeak dakarren gozamenaz ere ari-tzen da artikuluan.

### 1962

Zeledon pertsona-jea oso hurbilekoa egiten zaio jendea-ri. Urte honetan, lehenengo z, Urrezko Zeledon saria banatzen da, alaitasunaren alde egin ohi zuten taldeen artean. Gasteiztarren ega-rria asetzeko modu bakarra alko-hola izan zen, urte honetako lehor-teak ur eskasia ekarri bai-tzuen hirira.

### 1963

Aurreko urtean lehor-tea nagusitu bazen, oraingoan hainbat ekitaldi bertan behera gelditu ziren euria-ren ondorioz. Hori dela eta, jaiak egun batez luzatu ziren.



Dantza erakustaldia Zezen-plazan (S. Arina y Albizu), 1960, abuztuak 9



Pensamiento Alavés. 1964-8-5

### 1964

Zenbait neska blusekin dantzan irtetzera animatzen dira, nahiz eta jende atzerakoiena aurka azaldu, ustez Gasteizko nahia eta dotore-ziaren aurkakoa baita!

### 1965

Lehen jaialdi folklorikoa dugu 1965eko abuztuaren 8an egin zena: 60 txistulari baino gehiago bildu zituen alardea izan zen festa hauen ekitaldi nagusia.

## MARIENNA BALETA ETA AURRESKUA

Marienna ballet dantzariak ikuskizuna eskaini zuen Santiago egunez. Egun horretan txundituta geratu zen Gasteizko euskal dantzariekin eta, horregatik, abuztuaren 1ean eskaini beharreko ikuskizunerako euskal dantzaren bat ikastea erabaki zuen. Irakasle lanetan Manolo Andoin, Jesus Errasti eta Carlos Salazar izan zituen. Azkenean, ez zuen ikuskizunean euskal dantzariak sartzerik izan, hala eta guztiz ere, Carlos Salazarren gaitasuna-rekin aho-zabalik, bere konpainiarekin joateko eskatu zion, dantzariaren ezezkoa jasoz.





## 1966

Blusak baino arrakasta handiagoa! Frantziatik etorritako "Mont Marsaneko neskak" majorette taldeak blusek beraiek baino gehiago erakarri zituen begiradak.

## 1967

Gasteizko festetarako argitaratu ale berezian euskara, euskal kultura eta ohituren aldeko artikulua aurkitzen dugu Norte Expres-en J.M<sup>a</sup> Sedanok idatzia.

## 1968


Euria zela eta, animazioa espazio itxietan kontzentratu zen eremu irekietan egin beharrean. Euriaren ondorioak "barrakeroek" pairatu behar izan zituzten batik bat.

## 1969

Matxete plazan La Blancako I. Idi Proba egiten zela, lapurrek milioi eta erdi pezeta inguruko bitxi botina lapurtu zuten Foru kaleko "El León de Oro" dendan.



Majoretten desfilea Dato kaletik (S. Arina y Albizu, 1967-8-6)



Norte Expres. 1969-8-6



## 1970

Hobe zuen Manuel Benitez "El Cordobés"-ek Gasteizko kaleetatik ez agertzea Zezen-plazan egin-dako "ihesaldia" eta gero, Gasteizko zezenzaleak eta blusak ez baitzituen oso lagun.

## EMAKUMEAK ETA BLUSAK

Emakumeek beren edertasuna eta "glamourraz" ikuskizunak janzten zituzten. Horregatik, urtero ederrenak aukeratu eta auto irekian -apain-orra-zi eta mantila jantzita- blusekin desfilatzen zuten

zezenketan buru ziren gasteiztar eder horiek. (... emakumearen partehartzea, bai, baina berdintasunean oinarrituta?!?!... Desfilatzen zuten gizon-ekoak akaso hautatutako ederrenak ziren? Gaur oraindik ere gai hau menperatuta ez bada-go, kalkulatu garai horretan...).



# Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta  
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

# IRUSTA

**poteo eta pintxoak**

**ESPEZIALITATEA:**

**Patata tortila • Otartekoak**

**TABERNA**

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33  
GASTEIZ



# LA RIOJANA jatetxea

**on egin!** bokatak,  
pintxoak,  
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

# Ka La MUA TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde  
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16  
01008 Vitoria-Gasteiz

# Zure denda erotikoa

# SEX

Sexua  
euskaraz  
bizi



**PITTILIN  
GORRI**

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel:945 15 42 60

DONOSTIA  
OIARTZUN

# XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2  
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ  
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

# EUSKAL LABELA LASAGABASTER

**harategia eta urdaitegia**

**Gasteizko  
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

# UDABERRIA elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33  
GASTEIZ

**"Herri kirolak eta herri  
jolasak kultura dira"**

# KULKI

**Tlf.: 945.139.699**



## 1971

Andre Maria Zuriaren plazatik lehen aldiz egin ziren Zeledonek ongi etorria jaiei. Gainera, ordura arte eramandako ator beltza koadro urdinekoagatik ordezkatur izan zen. "Fiel estilo de la popularizada por nuestras casheras del maravilloso valle alavés de Aramayona", dio Norte Expres-eko artikuluak.



Norte Expres (Isasi eta Zeledon). 1973-8-4

## 1972

"Euskara ikastaroa" dioen izenburu handi batek (Curso de euskera) Norte Expres-eko orrialde oso bat betetzen du; badirudi jaietan euskaraz mintzatzen zela eta ez zekienari aukera ematen zion egunkari honek ikasteko. Pelayo 85 urteko blusa aitzindariari eginko elkarriketa agertzen da.



## 1973

Jaien hasiera asteburua izanik inoiz baino jende gehiago gerturatu zen Gasteiza eta horrela adierazten du artikulu batek: "Inoiz baino giro handiagoa". Bestetik, jendearen zeresanak arindu ziren Paquirrik eskainitakoaren ondorioz, ez baitzen toreadorea fin ibili.



Blusa eta amabitxiak zekorketan (Arque). 1959, uztailak 25

## 1974

Urtero bezala, Gasteizek poztasunez bizi ditu bere jaiak. Jaietarako gogo askorik ez, Nixon ziurrenik, Watergate auzia dela eta.

## 1975

Jaietan beren zaletasuna asetzeko aina partida ikus dezakete Gasteizko pilotazaleek, hauen artean Retegi II ezagutuko dutela. Zeledon panpina erre egin zen su batean, hori bai, bere lana bete ostean.



Norte Expres. 1978-8-5

## 1976

Ez ziren inondik inora festa normalak izan. Martxoaren 3ko gertaeren ondorioz blusak ez ziren kalera atera. Giro politikoa eta errebindikazioa festa giroari gailendu zitzaizkion. Isasiren ordezkia, Enrique Orive, Zeledonon papera urte honetan bete zuela lehenengoz.

## 1977

Bai blusak kaleetan bai Isasi Zeledonarena eginez normalkuntza arnas daiteke berriro ere urte honetako festetan. Hala eta guztiz ere, hauek urte bereziak dira eta errebindikazio ezberdinak ez dira faltako.

## 1978

Jose Antonio Maturana Plazak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Aholkularia, txalotzen du Aldundia eta Udalak euskara zabaltzearen egiten duten lana, eta horrela dio: "haremos todo cuanto esté en nuestras manos por la defensa y extensión del euskara...".

## 1979

Kubak bizi duen krisiak badu eraginik Gasteizko jaietan! Bai, Kubako tabako industria krisian da uza txarren ondorioz, eta honen eraginez, inoiz baino puru gutxiago erreko da Zeledonon jai-tsieran. Cuerda alkateak lehenengo pregoi irekia egin zuen, gaztelaraz eta EUSKARAZ!

## 1980

Iñaki Landak lehenengoz egingo du Zeledonon papera. Herri kirolek badute toki berria: jaietan inauguratzen den Foru plaza.



Txosnak. 1998 (Artxibo)

## TXOSNAK. Herri mugimenduak (1)

Kontsultatu iturriek diotenez, txosnak "Toloño-ko aldapan" jarri ziren lehen aldiz Amnistiaren (1977) ostean, baita "Matxeten" ere (azken hauek ikastolen aldekoak; eremu honetaz aparte, ikastolen aldeko lokal bat jarri zen erdialdean).

Txosna hauetaz gain, 1979an "Plaza de los Guardias" delakoan ere beste bat jarri zen; hara hurbiltzen zen asko bertako iturrian sartzen ziren...

### 1981

Herri mugimenduek txosnen beharra plazaratzen dute, baina Udalak ez du baimenik ematen. Baimenik gabe, zenbait taldek (Amnistiaren Aldeko Batzordeak, KAS, Langabetuen Asanblada, Antinuklear Komiteak)... behin-behineko txosnak altxatuko dituzte Florida parkean. Barrakak hiri-gunetik inoiz egondako tokirik urrunenera eramango dira, gaur egun dauden Mendizabalera hain zuzen ere.



Egin. 1982-8-5

### 1982

Arazoak eta Udalak jarritako trabak gaindituta, txosnak jai guztietan zehar izan ziren. Jairik egin ez zutenak uztailearen 7tik greban ziharduten Arabako langileak izan ziren.



### 1983

Euri zaparrada izugarriarekin agurtu zituen festak Gasteizek, tximista, haize, trumoi eta guzti.

### 1984

Gasteizko abuztuko festek 100 urte betetzen dituzte!

### 1985

Hala Bedi Irratiak lehenengo jai alternatiboak antolatzen ditu Zeledonen anaia iraultzailearen jaitsierarekin, Peleon alegia. Jai hauetako kartelak zeresan ugari eman zuen: jai alternatibo eta profanoak aldarrikatzen zituen hau Ama Birjinaren irudi sensual-sexuala baitzen.

### 1986

Istilu larriak izan ziren polizia eta Gestoras-ek deituriko manifestarien arteko liskarretan, guztira 50 bat pertsona izan zirela zaurituak.

### 1987

Zeledonek ez du jaitsiera ke artean soilik egiten, azkeneko urteetan txanpaina ere badu lagun eta. Udaletxeak programan egindako berriztapen ezaren aurrean, txosnek beren egitarau alternatiboa aurkezten dute -nahiz eta baimenik ez, urte honetan ere Floridan izango dira-.

### 1988

Ekintzen egitaraua eta dirua dela eta, Udalak toki eta talde guztietatik kexak jasoko ditu. Gauzak horrela, eskasiagatik barraka gabeko urtea izango da hau.

### 1989

Blusen artean mutilez gain, blusa neskak ere badira eta dagoeneko emakumezkoen hirugarren taldea sortzen da 89.ean, "Neska ausartak" izenarekin.

### 1990

Zeledonek inoiz baino zorabio gehiago sortarazi zituen...; noski, jaitsiera 40 graduko temperatura zegoela egin zuen eta...



## TXOSNAK. Herri mugimenduak (2)

80. urtean Komite Antinuklearrek soilik jarri zuten txosna Florida parkean, Canciller Ayala hotelaren parean; baimenik ez, hortaz, ez argirik ezta urik ere, 81ean gertatu bezala.

## 1991

Txosnek lehen aldiz programa kultural osoa prestatu zuten; Florida parkean, beraz, zinema, musika-bideoak eta kontzertuak ikusi ahal izango dira.

## 1992

Gasteizko lehendabiziko erraldioen bilkura izan zen urte hone-takoa. Arrasate, Laudio, Agurain, Altsasu, Bilbo eta Biasteritik etorritako erraldoiek Udal Konpartsaren 75. urteurrena ospatu zuten.

## 1993

Euskaldunon Egunkariak Ez da giroa sailean krisi ekonomikoaren ondorioz jaien antolaketan aldatetak izan direla aipatzen du, esanez hainbat ekitaldi babesleei esker egin ahal izango direla.

## 1994

Urte honetan Zeledonen etorrerarekin batera zerutik ere euri ekaitz indartsua izan zen, baina honek ez zituen animoak moteldu. Plazan, 25.000 txanpain botila hustu ziren.



Egunkaria (gehigarria). 1992-8-4

## 1995

"Euskarak bere gunea du" dio Egunkariak "Matxete" -Aihotz-plazari erreferentzia eginez. Bertan txistulariak, dantzariak, abeslariak..., eta lehen aldiz Gasteizko Tikitixa Txapelketari ongi etorria egingo dio Matxetek.

## 1996

Dianen ordu aldaketa kritikatzan du Egunkariak: "Garai batean eguneko ekitaldi politena; gaur egun, berriz, 10etan hasi beharrean

eguerdiko 13:00era pasa behar izan dira jendea lotan baitago".

## 1997

Istiluak izan ziren talde bat Amnistiaren aldeko pankartak apurtzen saiatu zenean Andre Maria Zuriaren plazan txupinazoa hasi aurreko minutuetan.

## 1998

Uda honetan Egin egunkariak eta irratia jasandako zentsura eta itxieraren ostean, Euskadi Información izenaz kaleratzen den egunkariak Gasteizko jaiei txoko bat eskaintzen die. Urte honetan ere, aurrekoetan bezala, txosnak Luis Heinz kalean izango dira PP eta PSOEn haserre eta guzti.

## 1999

Zeledonen aterkia kraxxx! egin eta erditik zatitu zen, haxe etorkizunerako pasadizo bilakatuz.

## 2000

Alkate ez zen lehenengo pertsona izateaz gain, Maria Jesus Agirre txupinazoa pizten zuen lehendabiziko emakumea izan zen iaz.



Zeledon Txiki. 1998 (Artxibo)



Fiestas en Honor de la Virgen Blanca 4-9 Agosto 1994. Vitoria-Gasteiz

Jaiak Andra Mari Zuriaren ohoretan Vitoria-Gasteiz 1994eko Abuztuaren 4tik 9ra

## Ongi etorri!!

# Gorka Ortiz de Urbina Zeledonek belaunaldi ordezkatzeara gauzatu du

Hamasei urte zituela atera zen lehendabiziz blusa koadrila batean Gorka Ortiz de Urbina. Ordutik jaiak zaletasun handiz, lagunekin eta lasai asko bizi izan ditu; aurtengo festak, berriz, oso bereziak izango dira Gorkarentzat, eta milaka gasteiztarren begiak berari begira dituela ibili beharko da Iñaki Landaren errelebua hartzeko Blusen Komisioak aukeratu duen Zeledon berria. Blusa izaten darman hamalau urteetan Luken eta Bereziak taldeetan ibili da; izan ere, egun bigarrenaren presidentea da, “duela bi urtetik eta urrian utzi egingo dut”. Gorka Ortiz de Urbina Argantzunen bizi den 29 urteko gasteiztarra da. Euskalduna, planta onekoa, atsegina eta apala, gainera zer datorkion oso ondo ez dakiela, “jaiak eta blusa izatea zer den dakidalako aukeratu nautela”, azaldu du. Iñaki Landak markatutako bideari jarraituko diola dio: “Bere maila ematea gustatuko litzaidake, oso ondo egin duelako, baina bera bera da eta ni Gorka Ortiz de Urbina naiz”, azpimarratu du konparaketak gehiegi gustatzen ez zaizkiola argi utziz.

Iñaki Landa karismatikoa ahaztea zaila izango bada ere, belaunaldi ordezkatzeara bete du Zeledonek XXI. mendearen lehenengo jaietan. Aldaketarekin gasteiztarrok Zeledon euskaltzalea izatetik Zeledon euskalduna izatera iritsi gara.



### - GASTEIZEK DUEN ONENA?

Festak.

### - TXARRENA?

Etxebizitzarekin dagoen arazoa.

### - JENIORIK BADUZU?

Bai, ahizpak gaseosa bezalakoa naizela esaten du: mugituz gero eztanda egiten dut, baina minutu gutxitan lasai-lasai geratzen naiz.

### - ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Ez dakit... gauza askok, intolerantziak esate baterako.

### - BIZIORIK HANDIENA?

Lagunekin irtetzea.

### - BERTUTEA?

Jatorra naizela uste dut.

### - ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?

Lasaitasuna.

### - GEU ALDIZKARIA ETA GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Aldizkariaren berri baneukan, nahiz eta inoiz ez dudan irakurri.

### - ARDO GORRIA ALA BELTZA?

Beltza, noski.

### - ZURE AMETSA?

Ondo egotea.

### - ZALETASUN BAT?

Saskibaloia.



### - OPORRETARA NORA JOANGO ZINATEKE?

Leku askotara, baina aurtengo uste dut Cadiz aldera joango garela.

Testua: Leire Lopez de Aberasturi - Arg. Edorta Sanz



# Errioxa arabarrak jai zoriontsuak opa dizkizue



## Eskuernaga - Villabuena (ARABA)

# LOS ROTUROS

## HOTELA TABERNA JATETXEA



### BEREZITASUNAK

- Arkume errea
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Enpresa bilerak



Tlf.: 945.410.250  
Errementari (Herreria) kalea, 10.

**MAEZTU**

e-mail: [losroturos@teleline.es](mailto:losroturos@teleline.es)  
web orria: [usuarios.tripod.es/losroturos](http://usuarios.tripod.es/losroturos)